

**Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Saileko Teknikari lanpostua errelebo kontratuaren bidez aldi baterako betetzeko lehiaketa-oposizioa dela medio lan-poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak errebokatzea.**

02/19 DEKRETUA.- Ogasun eta Ondare Sailerako errelebo kontratu bat sinatzeko ireki den espedientearen berri eman ondoren.

Kontuan harturik 2018ko apirilaren 13ko 82/18 dekretuaren bidez onartu zirela Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Saileko Teknikari lanpostua errelebo kontratuaren bidez aldi baterako betetzeko lehiaketa-oposizioa dela medio lan-poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak.

Deialdia 2018ko maiatzaren 2an argitaratu zela Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 83 zenbakian, eta eskabideak aurkezteko epe bat zabaldu zela, zeina 2018ko maiatzaren 22an amaitu baitzen, eta 2018ko ekainaren 7ko 132/18 Dekretuaren bidez onartu zela onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda eta akatsak zuzentzeko hamar egun baliouduneko epea.

2018ko ekainaren 12an Udaleko sarrera-erregistroan sartu zela Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Toki Administrazio eta Erregistro Administratiboekiko Harremanetarako zuzendari andrearen idazkia, zeinean, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituzten 56 eta 54 artikuluen arabera, zenbait konturi buruzko informazioa eskatzen baitzuen eta aipatutako espedientearen onartuko oinarrietan zuzendu beharreko zenbait gauza adierazten baitzituen.

2018ko uztailaren 18an, errelebo kontratua eskatu zuen udal langileak sarrera erregistroan sartu zuela idazki bat, zeinaren bidez atzera egiten baitzuen eskabide hurari zegokionean eta 2017/10/20ean egindako eskaera deusezteko eskatzen baitzuen, eta horren ondorioz ez dagoela beharizanik Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Saileko Teknikari lanpostua errelebo kontratuaren bidez aldi baterako betetzeko lehiaketa-oposizioa dela medio lan-poltsa sortzeko deialdia egiteko.

Hori dela eta, errebokatu egin behar da eta baliorik gabe utzi 2018ko apirilaren 13ko 82/18 Dekretua, zeinaren bidez onartu baitziren Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Saileko Teknikari lanpostua errelebo kontratuaren bidez aldi baterako betetzeko lehiaketa-oposizioa dela medio lan-poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak eta, bestalde, horren berri eman behar zaie interesdunei eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Toki Administrazio eta Erregistro Administratiboekiko Harremanetarako zuzendari andeari.

Kontuan harturik Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109 artikuluan xedatutakoa, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.g) artikulua ematen dizkidan eskumenak baliatuz eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan aurreikusita dagoen goragokoak eskumenak bereganatzeko ahalmena erabiliz, honako hau

## EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Errebokatzea eta baliorik gabe uztea 2018ko apirilaren 13ko 82/18 Dekretua, zeinaren bidez onartu baitziren Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Ogasun eta Ondare Saileko Teknikari lanpostua errelebo kontratuaren bidez aldi baterako betetzeko lehiaketa-oposizioa dela medio lan-poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak.

BIGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea interesdunei eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Toki Administrazio eta Erregistro Administratiboekiko Harremanetarako zuzendari andreari.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren zazpian.

ALKATEA